

# Juan Ignacio Uria hil da, frankismoaren ondorengo Azkoitiko lehen alkatea

NEREA URANGA<sup>1</sup>

Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko presidentea ere izan zen Juan Ignacio Uria hil zen atzo (Ekainaren batean), 85 urterekin. Frankismoaren ostean, 1976an, Azkoitiko lehen alkatea izan zena.

Hain zuzen ere, **1976ko otsailetik 1979ko apirila bitartean izan zen Azkoitiko alkatea**. Juan Bautista Mendizabal Azkoitiko kronistak azaldu duenez, hainbat herritarrek eskatuta hartu zuen alkate kargua: “Franco hil ostean, orduko Udalbatzak udala utzi zuen, eta ezer ez zen gelditu udaletxean. Hala, herriko hainbat mugimendutakoek eskatuta, ikastolako jendeak, enpresa mundukoek... alkate kargua hartu zuen Uriak. Era horretan, udal hauteskundeak egin bitartean, kargu hori izan zuen”. Garai hartan zegoenarekin udala kudeatzeko ahaleginak egin zituen Uriak, Mendizabalen arabera: “Udalak izan behar zuenaz, eta eduki behar zuen kudeaketaz egin zuen lana. Uriak, herriaren antolamenduari garrantzi handia eman zion, eta baita hezkuntzari ere”. Trantsizio garaiak ziren, eta “herri barruan bakea” lortzeko ere lan egin zuela nabarmendu du Mendizabalek: “40 urtez frankismoa egon zen, eta herrian bertan bakea izateari garrantzia ematen zion”.

Azkoitiko alkate zela, **Bergarako alkateen mugimenduan** ere parte hartu zuen Uriak; han bildutakoek amnistia, euskara eta Euskal Herriaren etorkizuna erabakitzeke ahalmena eskatzen zituen agiri bat onartu zuten. “Uriak buruan zeukan Euskal Herriko askatasun legea, eta Lege Zaharrak eskuratzeko nahia zuen”, adierazi du Mendizabalek.

---

[1] 2015eko Ekainak 1. Urola Kostako Hitza.

1977etik Asanblada Konstituziogileko senataria ere izan zen, baita Eusko Legebiltzarreko ordezkaria ere. Madrilén ibili zenean, Euskal Herriko “egoera desberdina” zela azaltzeko ahalegina egin zuen. 1979ko Euskal Autonomi Erkidegorako Estatutua lortzeko eta onartzeko lanean jardun zuen.

“Garai hartan ETA bazegoen, baina abertzaletasunaren kontrako beste indarkeria bat ere ematen zen, eta hori pairatu zuen Uriak. Bere emaztearen botika aurrean lehergailu bat jarri zuten”, azaldu du Azkoitiko kronistak.

## Ilustratu osoa

Euskara eta arte ederren munduan ibilitako pertsona ere izan da Uriak; “ilustratua”, Mendizabalek azpimarratu duenez. “Izaera zabaleko pertsona izan da, eta alde guztietan izan ditu lagunak”, esan du.

**Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko presidente eta zuzendari ere izan zen, 1977tik 1979ra bitartean.** Elkarateak omenaldia egin zion 2012ko urriaren 6an. Elkartean “keizpe handia” zuen gizona zen Uria. Gaur egun Juan Bautista Mendizabal Euskalerrriaren Adiskideen Elkar-terko Gipuzkoako presidentea da, eta honek dio “ohore” handi dela bera elkarterko kide egin zeneko sarrerako hitzaldia Juan Ignacio Uriak egin izana: “Ohore bat izan zen hori, eta ohore bat izan da 14 urte nituenetik Uria ezagutu izana”. Uria Azkoitiko alkate zela, Mendizabalek elkarritz-keta bat egin zion: “Orduan nik Donostiako La Salle ikastetxean ikasten nuen, eta bertatik herriko alkateari elkarritz-keta bat egitera bidali ninduten. Urte asko dira elkar ezagutu genuela, eta bizipen hauek denak oroituta, orain haren heriotzarekin hunkituta nago”.

Euskalerrriaren Adiskideen Elkarateak idatzi batean azaldu du: “Gure herriaren iragan historikoa ezagutzeko defentsan bere aita zen Trino de Uriak egindako bidea jarraitzen jakin zuen Juan Ignacio Uriak”.

Lanbidez legelaria zen. Baina hainbat liburu ere utzi ditu idatzita: *Gentiles y Leyendas* (1963), *Los Amigos del País* (1975) eta *La Casa Torre de Emparan* (1977).

Euskal Herrian, Espainian eta European foro askotan parte hartu izan du Uriak.